

LAUZIRIKAREN 'ITSASO EZKUTUAK' LANA ESTREINATUKO DU EGOK HILAREN 13AN SEGOVIAN

Nazioarteko erronka Euskal Herriko Gazte Orkestrarentzat

Urtebete da Euskal Herriko Orkestra Gazteak bere bideari ekin ziola, eta nazioartera jauzi egiteko adorez ageri da jada. Hil honetan zehar sei kontzertu eskainiko ditu eta hauetariko bi Euskal Herritik kanpo izango dira. Lisboako Expon du zita nagusia.

Erredakzioa / Donostia

DATORREN astelehenean eman- go du Euskal Herriko Orkestra Gazteak udako denboraldiko lehen kontzertua. Euskal Herri- tik kanpo izango da, Espainian, Segoviako Uda Musikaleko Musi- ka Klasiko Gazteen Jaialdia zabalduz hain zuzen ere. Ondoren etorriko dira Santurtzi (aste- artean), Bakio (igandean, hilak 19), Donostia (20an, Orkestra Sinfonikoaren egoitzan), Gasteiz (21ean, Principal Antzokian) eta Lisboa (23an, Expoko Kulturges- ten).

Sei kontzertu guztira, atzo Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuak Juanjo Mena EGOk zuzendari titularrekin batera jakinarazi zuenez. Kontzertuotan aurkeztuko diren egitarauak bi dira. Bata sinfonikoa da, iazkoaren aldean berrikuntza gutxi duena eta Donostian eta Gasteiz- en eskainiko dena. Bestea, Segovian, Santurtzin, Bakion eta Lisboan eskainiko dute, eta dei- garriena, Antonio Lauzirika eus- kal konposatzailearen *Itsaso ezkutuak* lanaren estreinaldia dugu. Egileak berak jakinarazi duenez, lan hau «oso koloretsua da, eta oso zaila teknikoki». Lau- zirikaren lanaz gain, Beethove- nen *Kontzertu hirukoitza Do maior-en* eta Tchakowskyren *4 zenbakidun Sinfonia* landu dute EGOk partaideek kontzertuota- rako.

Egitarau guztiak lantzeko, hilaren 2a geroztik Zestoako bai- nu-etxean entseiatzen ari dira Euskal Herriko Gazte Orkestrako partaideak. 101 dira guztira, 49



Euskal Herriko Gazte Orkestrako partaideak Zestoan trebatzen ari dira datozen kontzertuetarako. Astelehenean bertan eskainiko dute lehena, Segovian.

JON URBE

emakumezko eta 52 gizonezko. Musikarien jatorriari erreparatuz gero, 39 gipuzkoarrak dira, 34 bizkaitarrak, 13 nafarrak, 7 arabarrak, 5 errioxarrak eta 3 kantabriarrak.

Zestoan egiten duten hiruga- rren kontzentrazioa da, eta Lis- koako Exporen egitarauaren barruan, hilaren 23an emango duen kontzertuaren biharamu- nean amaituko da. Atzoko pren- tsaurrekoan gogoratu zuten, Zestoan irakasle lanetan ari diren irakasleak nazioarte maila- koak dira. Orpheus Quarteteko

partaide guztiak, Emile Cantor- Samama biola jolea buru dutela- rik. Laurentiu Sbaracea txelo jolea, Emilian Pedicuta konzerti- noa, Charles-Andre Linale biolin jolea, Jean-Christopher Gayot oboe jolea, Robert Van Sice per- kusionista eta nazioartean ospe- tsua den beste hainbat profesio- nal ari da egunotan bere jakindu- ria agertzen Zestoan.

Mari Karmen Garmendiak adierazi zuenez, «1997an sortu zen orkestra hau eta sendotu egin da». Euskal Herritik kanpo kontzertuak ematen hasteak

duen garrantzia ere nabarmendu zuen.

Babesleekin hitzarmena sinatua

Honen guztiaren berri emateaz gain, orkestra gazte honengan eragin zuzena duen hitzarmen bat sinatu zuten atzo EGOk arduradunek eta Vital Kutxa Fundazioa, BBK Fundazioa eta Kutxa Fundazioako ordezkari banak. Hitzarmen horren arabera, EGOk 20 milioi eta erdi pezeta jasoko ditu laguntza moduan. Diru kopuru hori orkestraren aurrekontuaren %40 da. X

'Txina: 5.000 urte' erakusketaren kariatara kontzertua, hitzaldiak eta bisita gidatuak Bilboko Guggenheimen

Hilaren 18an inauguratuko da erakustaldia eta ekitaldiak uda osoan izango dira Bilboko museoan

Erredakzioa / Bilbo

TXINAKO musika garaikide kont- zertuak hasiko ditu Txina: 5.000 urte erakusketa handiaren ingu- ruko ekitaldiak, Guggenheim Bil- bao Museoan hurrengo larunba- tean. Uztaila, abuztua eta iraile- an erakusketa ulertzen laguntze- ko hitzaldiak izango dira Hezike- ta Egitarauaren barruan. Bestalde audio-gidak jarriko ditu martxan pinakotekak, bisitari bakoitzak eraikinaren arkitektu- raren inguruko, zein erakusketa- ri buruzko informazioa jaso dezan.

Erakustaldiaren inaugurazio egunean, hilaren 18an, Musika

Bizia hirukoteak musikagile txi- natarren piezak interpretatuko ditu. Kontzertua 20:00etan hasi- ko da Guggenheimeko auditorio- an. Anne Marie Hoffman biolin jolea, Oscar Espina-Ruiz klarine- te jole bilbotarra, eta Noriko Nagasawa piano jolea dira New Yorken bizi den hirukotearen partaideak. Sei lan interpretatu- ko dituzte; hiru, kanta herrikoie- tan oinarritutakoak, eta beste horrenbeste estilo posmodernis- tagoa dutenak. Interpretatuko duten lanen artean dago Chien Yin Chen musikagilearen lan baten estreinaldia. Jazza, musi- ka herrikoia eta *Downtown Man- hattan* estiloko inprobisazioa

uztatu ditu txinatarren lan berriak.

Udako hiru hilabeteotan egin- go diren hitzaldiei dagokienez, le- henena hilaren 26an izango da. Arantxa Pereda ekialdeko artean adituak, Txinako estetikaren ildo nagusiak izango ditu hizpide. Abuztuaren 27an, erakusketa hezkuntzaren ikuspuntutik bisi- tatzeko aukera izango da. Iraila- ren 1etik aurrera, Txinako artea eta kultura ardatz izango dituen hitzaldi sorta antolatu du museoa- k.

Ahots ezagunak audio-gidetan

Audio-giden bitartez, bisitari ba- koitzak modu autonomoan ikusi

ahal izango du erakusketa, eta al- di berean informazioa jaso. Bisi- tari askorentzat ezagunak izango dira audio-gidetan berba egiten duten ahotsak: Iñaki Gabilondo, Andoni Aizpuru, Maddalen Iriarte eta Xabier Euzkitze esatariek grabatu dituzte gidok.

Udako larunbatetan, famili- entzako dohaineko bisita gidatuak antolatu ditu Guggenheim Bilbao Museoak. Horien amaieran ume- entzako ekitaldi bereziak izango dira.

Irakaskuntza sektoreko kideek ere izango dituzte bisitaldi bere- ziak. Irakasleei, gainera, erakus- keta handiari buruzko ikastaro- an parte hartzeko aukera eskai-

'Le Cid' antzezlanaren berriz ere Avignon-en izango da

Gerard Philipek duela 50 urte aurkeztu zuen Corneilleren antzezlanaren berriz ere Avignon-en izango da

Agentziak / Paris

CORNEILLEREN *Le Cid* lan ezaguna 1951ean aurkeztu zuen Gerard Philipek Avig- nongo Nazioarteko Antzerki Jaialdian. Orain, berriro ere, ia 50 urte pasatu ondoren, Declan Donnellan ingelesak eramango du Avinongo Udal Antzokira. Frantziako hegoko- dean egingo den Nazioarteko Antzerki Jaialdi honi atzo eman zitzaion hasiera Jean Louis Martinellik ekarritako *Edipe le tyran* lanarekin. Cor- neilleren lana gaurtik uztaile- ren 22ra arte izango da ikus- gai.

Aurtengo jaialdia Bernard Faivre d'Arcier-en mandatu aldiarekin bat dator. Faivre d'Arcier 2000. urtera arte egongo da mandatuan. Or- duan, hain zuzen ere, Avignon Europako kultural hiriburu izendatua izango da. Gainera, orain arte Frantziako beste hi- ri batek ez du izan era honeta- ko izendapenik.

Avinongo Antzerki Jaialdia abuztuaren 2ra arte luzatuko da. Epe horretan Shakespeare idazlearen sei idazlan eskaini- ko dira. Horietako bat izango da *Giulio Cesare* Romeo Cas- tellucci italiarraren bertsioa.

Jazz joera berriez blai izango da Donostiako Udaletxea uztailearen 28an

Erredakzioa / Donostia

JAZZ JOERA BERRIETAKO dohako kontzertuak izango dira uztailearen 28an Donos- tiako Udaletxearen inguruan. Gazteria sailak antolatutik. Izan ere, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, Phila- delphia Gospel Seminars abesbatza, Calle Caliente La- tin Jazz, eta Tribal Jam talde- ak ariko dira Alderdi Ederren; Parafunk, Los Verdaderos Kreyentes de la Religion Hip Hop, El Club de los Poetas Vio- lentos, eta hainbat disko jar- tzaile Udaletxeko erakustare- toan; eta De Diego Brothers eta Andrejz Olejniczak Quar- tet taldeek joko dute batzar- areto nagusian.

Hip hop dantza, diskoak ipintzeko scratch teknika, eta grafiti margo teknika ikasteko tailerrak ere izango dira uztaile- ren 22tik 28ra, 14 urtetik 30era bitarteko gazteei zuzen- durik. Izena-ematea dohainik da Gazteria Sailaren bulego- an, hilaren 17ra arte. X